

bidegileak



Andoni Arozena (1907-1989)

Egilea:


NEREA NAVARRO

Bi milioi laurleko euskararentzat

*M*ila bederatziehun eta hogeita hamar-
garren urtea. *Euskal Esnalea* aldizkariak
bi milioi pezeta (hamabi mila euro
inguru) «eskain-tzen» zituen bere irakurle-
leen artean nahi zuenak iritzia eman
zezan dirua euskararen alde banatzeko
moduaz. Horrela jasotzen zuen aldiz-
kariak irakurle baten iritzia:

Lasarte´ko euskera-maitale zintzo
Aroze-na´tar Andoni´k ona zer dion:

¿Bi miloi laurleko euskeraren alde?
Begira nere iritzia diru ori zabalduko
luken era:



Andoni Arozena Gomendio (1907-1989)

Radio-emisora bat antolatuaz bertako zuzen-
dari euskeltzale jakintsu bat jarri. Jakiña da
euskeraren alde bakarrik lan egiteko ez
litzakela baimenik izango; egunero pixka bat
egiaz ordea denbora asko baño len sustrai
sendo ta ugariak zabalduko lira.

Aur-izparringi asteroko bat egiñaz
Euskalerriko txikitxo guzien artean zabaldu.
Erri guzietan euskera erakutsiko duen
irakaslari bat edo geiago izendatu.
Erri guzietan bertako *aur-eguna* urtero egin,
al-liteken saririk onenakin.
Erri guzietan antzoki-leku bat antolatuaz
al-liteken maizena antzoki-jayak egin.
Idazti-batzaldiak, gai guzietakoak eta sari
onakin eratu.
Kristau-ikasbide edo *dotriña* euskera garbian
egin eta zabaldu.

Gazterik piztu zitzaion Andoni Arozenari euskara defendatzeko grina. Idazketaren bidez bultzatu nahi izan zuen bere hizkuntza eta, ondorioz, antzezlan eta artikulu ugari idatzi zituen. Caracasko *Euzkadi* aldizkarian idatzi zuenez, antzerkiaz baliatu zen euskara bultzatzeko eta defendatzeko. Beti izan zuen luma alboan euskarari eta aberriari buruz idazteko. Azken finean, euskara babestu eta bizirik mantentzearren idatzi zuen, borrokatu zuen eta lan egin zuen. A-Bi ezizenarekin sinatu zituen bere iritzi-artikulu gehienak, Gerra Zibilaren garaitik bere azken egunak arte, 1989. urtean. A-Bi, izena eta lehen abizena hizki berarekin hasten zirelako, noski.

Bihotz handikoa eta baita zorrotza ere; abertzalea, fededuna eta Sabinista sutsua. Horrela deskribatzen dute A-Bi ezagutu zutenek. Esku artean dugun lana, beraz, bere bizitzaren zertzelada bat da.

Egilearen oharra: Barka diezadala Andoni Arozenak H-a erabiltzeagatik lan hau idazterakoan. Bere iritziz, letra horrek tximinia forma zuen, euskara zikindu baino ez zuelako egiten. «Kedar-izkia» deitzen zion. A, zenbat paper aurreztuko zen, bere ustez, euskaraz H-rik erabiliko ez bagenu... Zure baime-narekin, beraz, Andoni, —H eta guzti— hasi egingo naiz.



Andoni Arozena 1947an; 40 urterekin, beraz

Lasarte jaioterri

Andoni Arozena Gomendio 1907. urteko maiatzaren 30ean jaio zen, Gipuzkoako Lasarten (Lasarte-Orian, gaur egun). Eleuterio Arozenaren eta Manuela Gomendioaren semea eta Karmen, Benantxi, Maximino eta Rosaritoren anai-arreba. Familia kidesunari dagokionez, beste datu bat: Andoni, Fausto Arozena donostiarraren lehengusua zen. Fausto Arozena Gipuzkoako Aldundiko artxibo zaindaria eta Euskal Herriaren gaineko

hainbat libururen eta artikuluren idazlea izan zen.

Marraskilari trebea izan zen lasartearra. Bere hainbat artikulutan azaldu zuen abilezia hori eta ogibidea diseinura bideratu bazuen ere, ez zen hori izan gaztetan egin zuen lan bakarra. Anaia Maximinorekin lixiba tailertxo bat sortu zuen Lasarten. Oilategi bat ere izan zuen eta bitxikeria bat: Andoni asmatzailea izan zen. Arropa garbitzeko makina bat asmatu eta patentatu zuen 1935ean. *Garbikin* izen izena makina horrek.



Lasarte herriaren ikuspegi bat, 1950. urte aldera



Andoni Arozenak marraztutako irudi bat, 1940an

Osasun arazoak

Ekimen handiko gizona; ez, ordea, osasun handikoa. Gaztetatik osasun arazoak izan zituen: kardiopatia erreumatikoa izan zen bere gaitza. Gaixotasun horrek asko mugatu zuen bere bizitza, baina izugarri kontu egin zuen bere osasuna eta zainketa horri esker bizi ahal izan zituen 82 urte. Bada bere osasunarekin zerikusia duen pasadizo bat. 1937tik 1939ra Bartzelonan izan zen Euzkadiko Justizia eta Kultura Departamentuan lanean. Abenduaren

24 batean, etxean zegoen bitartean, ustezko bonbardaketa baten alarma-hotsak entzun zituen. Bere solairuko eskailerak jaitsi eta babeslekuan geratu zen zain. Beste behin jaitsi behar izan zituen eskailerak, baina hirugarrenengo aldia etxetik ez mugitzea erabaki zuen —bere bihotzak eta bere izaera setatsuak horrela aginduta—. Gabon gaua izanda, xanpain botila ireki eta hantxe geratu zen, arriskuak arrisku, errematerako mazoaren zain, heriotzaren zain, gozo, behintzat, xanpainaren burbuila artean.



Andoni Arozenak bere buruari egindako erretratua, 1937an

Antzerkia eta euskara

Antzerkiak berebiziko garrantzia izan zuen lasartearrantzat. Bere ustez, antzerkia zen euskararen oinarri sendoenetako bat eta, beraz, euskara bultzatu nahi bazen, antzerkia bera bultzatu behar zen. Nola? Antzezleak eta antzerkigileak behar bezala sarituz, kritikonak trebatuz, gazteengan zaletasuna sortuz eta euskaraz egiten den antzerkia profesionalizatuz.

Gaztetan, antzezlan ugari idatzi zituen eta baita sariak lortu ere. Santo Tomas eguneko antzerki-sari batean zaletu omen zen antzerkira, 18 urte inguru zituela (1925. urte aldera, beraz). Ho-

rrela kontatu zuen hasiera hura hogei urte geroago Caracasko *Euzkadi* aldizkarian, «Euskel-Antzertia» artikuluan:

[...] Neronen euskel antzerti zaletasuna ere egun oietako jaiak zirikatua da ta nere bizitzako asetasun aundienetako eme-zortzi bat urte nituela aitaturako egun batez egindako sariketan opa izandako sari bakarra niretzat izan zala oroitzea da [...].

«Euskal antzertiaren lenengo aroa» izendatu zuen garai hura Andoni Arozenak. Toribio Altzagaren garaia zen: euskaraz antzetzeta indarrean zegoen garaian, Donostialdean, batez ere. «Euskal antzer-tiaren bigarren aroa», Andonik berak artikulua horretan zehazten zuenez, Primo de Riveraren diktaduraren

erortzetik 1936ko guda hasiera artekoa izan zen. Ederki deskribatzen du aldi hura:

[...] Susperraldi bizi arren zirikalarienetakoa bat Ariztimuño´tar Joseba, beñere aztuko ez degun «Aitzol» apaiz euskeltzale jator eta jakituna izan zen. Berorrek sortua zan ain ondore onez urtero eratzen zan «Antzerki eguna» [...] Antzerki-egun ori iru urtetan egin zan eta arrokeririk gabe, baña aetasunez beterik esan dezaket iru urteetan nere antzerkitxoak sarituak izan zirala [...].

Hala da. Andoni Arozenak antzerki asko xamar idatzi zituen: *Zorigaitz malkoak* (1929) bezala non 35 urteko «indiano» bat bere baserrira bueltatzen den gurasoak agurtzera, kartzelan, inolako errurik gabe, hainbat urte

igaro ostean; *Txilibitu* (1930); *Urteurrena* (1933) zeinetan ezkontzaren lehenengo urteurrenean emakume ezkonberri zoriontsuak lehen urtearen errepassoa egiten duen, afari goxoa erretzen zaion bitartean; *Andregai naita...* (1933) edota *Balujan* (1934). Orain arte aipatutakoak bakarrizketak dira, baina idatzi zituen elkarrizketak eta ekitaldi bakarreko antzerki arinak ere: *Mox, Miss, Xapi* (1935) eta *Xanko ta Paxko* (1936).

Antzerti aldizkarian (Tolosa, 1932) Andoni Arozenaren antzezlan gehienak irakurri ahal izan ziren. Era honetara deskribatu zuen zuzendaritzak Andoniren lana: «Arozena tar´Andoni, lasartear ertilari bikaña etorkizun aundiko antzerkigile degu». Eta ertilari lasar-



Antzerti argitalpeneko azala, 1935ekoa. Bertan, *Mox, Miss, Xapi* eta *Balujan* antzezlanak iragartzen dira. Biak Andoni Arozenak idatziak

tearrak sari bat baino gehiago eskuratu zuen antzerki-sarietan: 1929an, *Zorigaitz Malkoak* lantxoagatik; 1933ko Antzertiren Batzaldian, lehenengo saria *Urteurrena* bakarrizketagatik (0,45 euro); 1934ko Antzertiren Batzaldian, bigarren saria *Balujan* bakarrizketagatik (0,15 euro) eta 1936koan, bigarren saria *Xanko ta Paxko* elkarriketagatik.

Donostian behin baino gehiagotan antzeztu ziren bere antzezlanak, eta baita bere jaioterrian ere. 1930eko Lasarteko Antzerki Jaietan *Zorigaitz Malkoak* lana antzeztu zen, Gabonetan. *Txaldataxur* ezizenarekin sinatzen zuen kronistak horrela iragartzen zuen jai hori *El Día* egunkarian:

[...]Euskaldun! Ez egun orretan antzokira joan gabe geratu, alde batetik zure euskera mordoltoa alde batera utzi ta eder eta apañagoko bat ikasteko era izango dezulako eta bestetik euskal antzerki eder bat ikusita zure biotz euskaldun goseduna aseko dezulako.

Joan gaitezen guziok Arozena jauna txalotzera atzerrietakoak ainbeste txalotu dutenean, gu txalotu gabe ezin gindezke gelditu ta.

Eguberri egunean, beraz, lasarte eta oriatar mordo bat bildu zen antzokian Bitor Gari-tonandiaren *Izartxo*a antzezlanak eta Andoni Arozena beraren *Zorigaitz Malkoak* bakarrizketa ikustera. *Txaldataxurrek* handik bi eguneko kronikan jasotakoaren arabera, badakigu Andoni Arozenak berak antzeztu zuela bakarrizketa hori eta txalo ugari jaso zituela.

Olerkiak eta ipuinak

Goizan sentia... / poli-poliki / egun argitzen; / gau beltz luzia / apal-apalki/ dijoa aztutzen.

Horrela hasten da 1930. urtean Andoni Arozenak idatzi zuen olerkia, *Egun bat* titulupean. Lasartearraren olerki horrek urte hartako Euskal Poesiaren Lehen Eguna sariketan parte hartu zuen. Sariketa hori Jose Ariztimuñok, *Aitzolek*, sortu zuen. Urte hartako sariketa Esteban Urkiagak, *Lauaxetak*, irabazi zuen, *Maite Kutuna* olerkiarekin. Aitzolek ondoren sariketa horri buruz idatzi zuen lanean, olerkari gaztetxoak aipatu zituen. Horien artean, jakina, Andoni Arozena: «[...] minkun eta xamur Arozena euskaltzale zintzoa, esaridun neurtitz laburretan». Handik urtebetera (1931n), beste olerki bat argitaratu zuen, oraingo honetan *Euskal Esnalea* aldizkarian: *Lorea ta neskatila*, gaztetako edertasun mugatuari buruzkoa.

Ipuinak ere idatzi zituen Gerra Zibil aurreko garaian. 1931koa da *Atsegin txingar bat* ipuin tristea: Imanol Leiarregik eta bere emaztea Edurnek hainbeste desio zuten umea izaten dute, baina jaiotzeko ordu gutxira, haurtxoa hil egiten da: «Zoriona, atsegin txingar bat besterik ez da. Gau odeitsuan. Laño bat igaro ta besteak estali bitarteko ilargiaren argi txingarra... Gero berriro, ilunpea, oñazea...».

Tartean gehiago idatziko bazituen ere, 1960. urteko *Egan* aldizkarian argitaratuta irakur daiteke beste ipuin bat, *Banoa* izenburuarekin.

Andoni Arozenak Caracastik idatzi zuen ipuin hori eta bere gogoan islatuko balu bezala dirudi, ipuinaren gaia erbestean —baina bihotzez

Euskal Herrian— bizi den semearen eta gurasoen hausnarraldiez hitz egiten duelako.



Imanol Leiarregi *Atsegin txingar bat* (1931) ipuineko protagonista bere haur jaioberria besotan duela. Marrakzi hori ageri da kontakizun horren amaieran eta litekeena da Andoni Arozenak berak marraztu izana, irudiaren azpialdean ageri diren bi A hizkiek adierazten dutenez

EAJko kide eta buru

aztetatik azaldu zuen konpromiso politikorako gogoia. Bere herrian lehenik, 1930ean, «Lasarte eta Oriako Uri Buru Batzarra» sortu berriko zuzendaritzakoa izan zen. Handik urtebetera lehen aldiz zabaldu zuten ikurrina herri horretan. Ekitaldi horren kronika Andoni Arozenak egin zuen *Euzkadi* aldizkarian. Mikel Urreta jaunak (oriatarra, abertzale eta euskaltzale ezaguna eta Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatua izandakoak) hitzaldia eman zuen ikurrina zabaldu aurreko ekitaldian. Horren ostean, ikurrina zabaldu zen Azurza jaunaren balkoian, txistulariek «Euzko Abendaren Ereserkia» eta «Gernikako arbola» jo-



Andoni Arozenaren Euzko JEL Alderdia-ren alderdikide agiria, Lasarten alderdikide egindakoa. Agiria 1936ko urriaren 26koa da

tzen zuten bitartean. Pozik zegoen Andoni Arozena egun horrek emandako uztogatik: «Igandeko jayak zabalduzako aziya asi da loretzen; egun abetan jamabi! Alderdikide berrikin loretu da Lasarte-Oria'ko Uri Buru Batzarra-ren abertzale sailla. ¡Aupa euzkotarrak! ¡¡Batu gaitezen guziok Euzkadi-ren alde!!» Urte hartan hasi ziren batzokia irekitzeko ahalleginean. Batzorde bat osatu zen eta taldean Andoni Arozena diruzain eginkizunetan aritu zen. Horrela, 1932ko uztailaren 17an ospatu ziren «Lasarte-Oriako Euzko Batzokiaren Askunde ta Mendigoizale ta Emakume-Abertzale-Batzaren ikurriñaren onespina ospatzeko jai aberkoi handiak».



Lasarteko Batzokia, 1932. urtean



Lasarteko Batzokia inauguratu zeneko eguna (1932). Batzokiko kideak Lasarteko kaleetatik barrena, ikurrinarekin



Lasarteko Batzokiaren inaugurazio eguneko ekitaldi bat (1932)



Lasarteko Batzokiaren inaugurazioa eta Emakume-Abertzaleen-Batzaren sorrera iragartzen zuen kartela (1932)

Iñe, emaztea eta lagun fina

Lanpetuta ibiliko zen garai hartan batzokiaren eraketa, antzerkien idazketa eta bestelako zereginetan, baina ziur ordurako zeregin berri batean ariko zela gure antzerkigilearen bihotz koskorra. Gutxi dakigu Andoni Arozenaren trebetasunaz bihotz bat erakartzeko. Dakiguna da Lasarteko Gorostegi familiako Joakinarekin (Iñerekin, berak deitzen zion moduan) maitemindu zela. 1935. urteko udan ezkondu ziren, Lasarten. Josu, lehen semea, urtebetera jaio zen, Gerra Zibila piztu zen urte berean. Handik aurrera gauzak asko aldatu ziren Arozena-Gorostegi familiarentzat.



Ezkontza-argazkia. Hauxe ageri da idatzita: «Lasarte'n 1935'go garagarriak 5. Arotzena tar Andoni, Gorostegi tar Jokiñe»

Erbesterako bidean

Gerra Zibilean, familiak jaioterria utzi eta Iparraldera alde egin zuen. Bidarten, Lasarten utzitako harremanari heldu zioten berriro ere Arozenatarrek eta Urretatarrek.

Garai hartan, Eusko Jaurlaritzaren *Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoan* lan egin zuen, euskarazko argitalpenean. Telesforo Monzo-nen zuzendaritzapean, hainbat idazle bildu ziren eguneroko hori euskaraz kaleratzeko. Talde horretakoak ziren, Andoni Arozenarekin batera, Txomin Arruti *Mendilauta*, J. Insausti *Uzturre*, Andres Artzelus *Luzear*, Iñazio Eiz-



Arozena-Gorostegi familia Migel Urretaren familiarekin Iparraldean. Ezker-eskuin, eserita, Maritxu Urreta, Joakina Gorostegi, bere magalean Josu Arozena, eta ondoan Maria Loidi. Zutik, ezker-eskuin, Karmele eta Rosario Urreta, Andoni Arozena, Mikel Urreta eta Migel Urreta. Argazkia 1939. urtearen ingurukoa da

mendi *Basarri* eta Fausto Leunda. Eguneroko hori 1936ko urritik 1937ko ekainera arte argitaratu zen.

Iparraldeko egonaldi hark lau urte iraun zituen, baina Andoni Arozenak lau horietatik bi Bartzelonan igaro zituen (1937tik 1939ra), Euzkadiko Justizia eta Kultura Departamenturako lanean. Gainera, Gobernu Zentraleko Justizia Ministerioko funtzionarioa izan zen, (kontzentrazio-esparruko funtzionarioa). Egonaldi horretan, artikulua mordo bat idatzi zuen *Euzkadi* egunerokoan, Bartzelonatik, baita

komikiak marraztu ere. Gehienetan, «Xelataka» izeneko atalean ageri ziren idatzi horiek eta guztietan *A-Bi* ezizenarekin.

Era guztietako sentimenduak irakur daitezke urtebetean idatzi zituen iritzietan: konpromisorik zorrotzena aberriaren alde, tristura atzean utzitako familiagatik, itxaropena egoera berri baten zain eta baita umorea ere; Popeie super-gizonari idatzitakoa bezala. Eskakizun jakin bat egiten dio A-Bik fikziozko pertsonari (1938-VII-31):

GOBIERNO DE EUZKADI

CARNET DE IDENTIDAD

N.º 446 - Folio N.º 1112

Nombre Antoni Arozena Semadeni

profesión abogado

estado civil casado

cargo que desempeña _____

lugar y fecha de nacimiento Lafite - Guipuzcoa
30 Mayo 1907

domicilio en Euzkadi _____

calle _____

domicilio circunstancial Barcelona

calle Urgel 20-6º 4º

familiares a su cargo _____

FOTOGRAFIA DEL TITULAR

Antoni Arozena

El Gobierno de Euzkadi hace constar que la persona cuyo nombre, apellidos, fotografía y firma figuran en este carnet, se hallan inscritas en el registro-padrón de residentes en Cataluña.

Euzkadi'ko Jauriaritza'k, txartel onen izen-abizenak, argazki ta izenpetu utzi duinak Kataluña'n bizitzen diren Arribidean izanbereste danda

Barcelona 11 de Abril de 1938.

[Signature]

Euzkadiko Gobernuak Andoni Arozenari luzatutako nortasun-agiria Katalunian (1938)



Bartzelonako *Euzkadi* egunerokoan argitaratu ziren irudietako batzuk, Andoni Arozenak berak marraztutakoak: *Franko'ren oitotza*, *Zakur gosetiaren larritasunak* eta *Lau pasteluruak* Marrazkiak 1938. urtekoak dira



[...] I, Popeye, zintzoa aiz, zuzena aiz; ator ba gugane, lenbaitlen etorri gero. Eta ire sartako berezi oietako batzuk ezker-eskubira zabalduaz bidalitzak fasciotarrak eta beren adiskide guzik; bidalitzak beroien aztarrenik geiago izango ez den lekura. Ia Popeye. ¡E...up!!

«Etxera begira» deritzan artikuluan (1938-IV-23), bakea irrikaz espero dutela aipatzen du:

[...] Gaur emen, biar an, batetik bestera ardi galdua bezela gabiltzanok amaika aldaketa ezagutu ditugu; batzutan erdi goseak, bestetan lur gogorrean lo egiñaz, pakearoko egunak irrikaz gogoratzeko zioa pranko aldiz izaten dugu.

Bartzelonako egonaldia amaituta, 1939an, Euskal Herrira itzuli zen, Iparraldera. Han, Ziburun aritu zen lanean, euskal eskolako zaindari eta euskara irakasle lanetan.





Bartzelonako *Euzkadin* argitaratutako artikuluetako bat, 1938an, «Xelataka» atalean



Caracas hiriburuan, Boulton familiako La Quebradita landetxea

Venezuelan bizimodu berria

Bidarten, Arozena-Gorostegi familiako bigarren semea jaio zen 1940an: Mikel. Urtarrila zen eta handik hilabete gutxira Venezuelara irten ziren Marsellatik, Comisaire Ramel itsasontzian (Andoni Arozenak bi heriotza-zigor zituen zama gainean). Lurralde hartara, urte hartako ekainaren 24an iritsi ziren.

Hutsetik hasi behar, baina, zailtasunak zailtasun, aurrera atera ziren piskanaka. Lehenik, Boulton familia aberatsaren negozioan lan egin zuen, Caracasen (bere bizitzaren amaiera arteko bizilekua). Lehen etxebizitza ere familia horren Quintan lortu zuten. Baina hura ez zen



Andonik eta Iñek gazte-gaztetatik transmititu zieten semeei euskal kultura maitatzen. Argazkian, Josu, Xabier eta Mikel euskal dantzariz jantzita gurasoen ondoan, Caracasen



Caracasera iritsi berritan, Boulton familiako La Quebradita landetxean. Ezker-eskuin, Andoni bera, Josu, Joakina eta Mikel

izan Arozenatarren betiko bizilekua. Boulton familiarentzako lana utzi eta Lyon iragarkien agentzian hasi zen lanean, marrazkilari modura. Eta familia hazi egin zen. 1943an, Xabier jaio zen. Hiru seme, beraz: zazpi urteko Josu, hiru urteko Mikel eta Xabier jaioberria. Diru gehiago irabazi behar eta gauetan lan berri eta bitxi batean hasi zen Andoni Arozena: Hollywood, Royal eta Principal zinema-aretoetan estreinatzen ziren filmeen kartelak marrazten zituen. Azkenean, Neon konpainia izan zuen diru-iturri ondorengo urteetan. Lantoki horretan, iragarki argitsuak egiten zituzten, neoizko tutuekin. Han egin zuen lan erretiroa arte.



Arozena-Gorostegi familia oso-osorik, Caracasen, 1946ko uztailean. Ezker-eskuin, Josu, Joakina, Xabier, Andoni eta Mikel



Joakina eta Andoni senar-emazteak Xabier seme gazteenarekin eta urtetan familiarentzat lan egin zuen Luisa venezuelarrarekin eta bere senideekin. Argazkia 1955. urte ingurukoa da. Luisak primeran ulertzen omen zuen euskara

Euskal kulturaren eragile

Caracasen bizi izan zituen urte guztiak euskara, euskal kultura eta bere aberriaren alde igaro zituen lanean. Hiribururu horretako Euskal Etxea sortzeko lanean jardun zuen bete-betean. 1942an inauguratu zen Euskal Etxe hori eta zuzendaritzako kidea izan zen, Lan batzordekoa, eta hezkuntzaz arduratu zen. Euskarazko eskolak ematen zituen, Martin Ugalderekin batera. Lehen eskolak Mugika ahizpen Mercedes ikastetxeko geletan ematen zituen, eskolak euskal etxean ematen hasi zen arte. Urte asko igaro zituen euskarako irakasle eta bere eredu edo metodoa osatu zuen eskola horiek emateko.



Euskarazko eskolak ematen, Caracasen, 1960ko abuztuan



Caracasko Euskal Etxeak Jose Antonio Agirre lehendakaria gonbidatu zuen bigarren egoitzaren inauguraziora, 1950eko martxoan. Aberri Egunarekin bat eginez ospatu zen ekitaldi nagusia eta egun horretan Andoni Arozenak euskaraz irakurri zuen bere hitzaldia.
Argazkian, Andoni Arozena eta Jose Antonio Agirre lehendakaria



Caracasko Euskal Etxearen bigarren egoitzaren inaugurazio ekitaldia (1950). Erdian, Jose Antonio Agirre lehendakaria meza entzuten

EVSKERA: lengua vasca EUSKO, vasco + -ERA, sufijo que significa modo de... modo de (hablar) vasco

85-VIII

1

CURSO DE EUSKERA — Auspiciado por EUSKO ETXEA, Centro Vasco de Caracas
— Preparado por ANDONI AROZENA

UNIFICACION - Conciencia de su importancia, nuestro programa va orientado a transmitirse por ese derrotero; con base en el GIPUZKERA OSOTUA, preconizado por el primer presidente de EUSKALTAZAINDIA, el ilustre lexicógrafo don Resurrección María de Azkue hace ya más de 60 años. En atención al sector más afectado, junto a toda fijación verbal, señalaremos estas parónimas la versión en biakalno: DUT (dos), DIZUT (diciendo), etc.

PROGRAMA - El curso consta de cuatro partes:

- 1) Cuadros de sílabas, recogidas en grupos.
- 2) Preverbos personales, demostrativos, adverbios, interrogativos, etc. (nirio, nirioa, nirioak, la, lea, el, etc.).
- 3) Verbo *izan*, forma lingüística "que sólo por su condición inmaterial no ha encontrado lugar entre las siete maravillas del mundo".
- 4) Ejercicios.

(Como complemento, en cuanto a pronunciación se refiere, por el momento nos serviremos de la transcripción fonética "Euskal Duta"; más tarde, según las circunstancias, se podría pensar en la grabación-caseta.)

ALFABETO

A	B	D	E	G	I	J	K	L	LL
a	be	de	e	ge	i	j	ka	le	lle
M	N	R	O	P	RR	S	T	TS	TX
me	ne	re	o	pe	rr	s	t	ts	tx
TZ	U	X	Z						
tz	u	x	z						

- La H, "letra chismosa que polifoniza la fonética del vasco", según apreciación del famoso escritor-intelectual Jorge Oteiza, representa el leve sonido aspirado, peculiar en algunas partes de la redadaña más donde se usa: Labard, Zubena y Berabena, etc.; la influencia del Estado...
- La letra Y es de uso restringido a ciertas reglas fonéticas.
- La J en algunas zonas tiene sonido igual al castellano: juna, jua, etc.; en otras se pronuncia como el sonido (juna), jua.
- LL y RR: antes de la guerra "civil" estas formas llegaban a generalizarse con tilde sobre la l (ll) y acento sobre la r (rr), pero al comienzo del "símbolo plácido de la revolución vasca", año 1968, se fue rechazando. En este curso, indistintamente, usaremos las dos formas, a discreción.

↓ cultural

PRONUNCIACION		
Castellano	Euskera	
g, j	GE, GI	Gemika, Elizabeh, gero, jero, jiron
g = cado, tirio	ZE, ZI	Zezana, Ezanero, zeta, ziri, ziri
c = cado, cado	K	Kara, kabiñ, kenda, kai, hale
q = quere, Quere	K	Kepa, koka, kiba, kaba, kaja
	TS*	itua, etsa, eri, zeta, zeta
ch = chio, chio	TX	txalpa, Txomin, txanda, txi, txi
	TX*	Altza, zeta, zeta, zeta, zeta

Andoni Arozenak erabiltzen zuen materiala euskarazko eskolak emateko. Horrela irakur daiteke orriaren goiko aldean: *Curso de euskera, auspiciado por Eusko Etxea, Centro Vasco de Caracas. Preparado por Andoni Arozena*

Izaera zorrotzekoa

Andoni Arozena ezagutu zutenen arabera, lasartearra gizon zorrotza zen, bere ideietan erraz amore ematen ez zuena. Venezuelako EAJ alderdian arazo bat baino gehiago izan zuen bere alderdikideekin, Jose Antonio Agirrek berak liskar horiek berehala konpon zitzaten eskatzeraino. Antza, behin baino gehiagotan utzi zuen alderdia, nahiz eta bere

konpromiso politikoari inoiz hutsik ez egin. Bada bere izaera temati horrekin zerikusia duen bitxikeria polit bat. Kristau fededuna erabatekoa, igande goiz batez elizara joan zen emaztearekin meza entzutera. Sermoiaren garaian, Bibliak masailekoa jasota bestea eskaintzea gomendatu zigula gogorarazi zien apaizak han bildutakoei. Halako batean, Andoni Arozenak, eserlekutik altxatu ostean,

hitza eskatu eta prediku hori orduko garaiekin bat ez zetorrela adierazi zion elizmaisuari. Edota beste pasadizo hau: Andoni Arozena ez zegoen ados Euskal Etxean dantzak antolatzearekin (batez ere, Sabino Aranaren irudia zegoen aretoan, sakrilegio hutsa zen, bere ustez). Horrela adierazi zion Ziburun bizi zen Joseba Rezolari gutun bidez, 1951n (hari bidaltzen zizkion Euzkadi irratirako artikuluak Venezuelatik): «[...] Euzko Etxe berri orrekin arrokeri geiegi ibilli da asieratik eta orain zorpetik atera eziñik naiko ixtillu izango da. Eta egia esan rumba, conga, guaracha, mambo eta orrelako dantza usaiak zearo azpiratuko duen bildur bear! Emengo “modernista” geienak “Uxa Luma” uts bai dira. *Euzko*

Gogoan irakurri al zenuen “Uxa Luma”z idatzi nuena?» Eta hauxe da Uxa Lumaren esanahia, 1950eko uztaileko *Euzko Gogoan* «Xelataka» atalean idatzi zuenez: «Uxa luma, ez gorri ez zuri, beti txoro, nora eguzki ara buruzki».



Joakina –Iñe– Gorostegi eta Andoni Arozena, Caracasen, 1963ko urtarrilean. «Romeo ta Julieta» ipintzen zuen argazkiaren atzealdean



Andoni Arozenak Jon Oñatibiarekin batera argitaratu zuen *Argia* aldizkariaren lehen zenbakia, 1946an, Caracasen

Kultur suspertzaile eta kolaboratzaile

Bere izaera tematiak arazo bat baino gehiago sortu bazion ere, Andoni Arozenak ez zion hutsik egin berak hainbeste defendatzen zuen euskarari eta aberriari. Horretarako bere «arma» kutunena erabili zuen: idazketa. Kolaborazio asko egin zituen hainbat eta hainbat aldizkaritan, beti euskaraz, dudarik gabe, eta, gehienetan, jakina, A-Bi ezizena erabiliz: besteak beste, Caracasko Euskal Etxearen *Euzkadi* argitalpenean, *Euzko Gaztedi*, *Azkatuta*, *Euzko Gogo*, *Irrintzi*, *Egan* eta *Goiz Argi* aldizkarietan eta baita Euzkadi irratian 1950eko hamarkadan eta Caracasko Eusko Deia irratian ere.

Baina kolaboratzaileaz gain, Andoni Arozena suspertzailea izan zen: *Argia* aldizkaria zuzendu zuen Jon Oñatibiarekin batera. Aldizkari horrek 1946tik 1948ra iraun zuen eta euskara hutsean argitaratzen zuten, argitalpenaren leloari zintzo jarraituz: «Euskaldunak euskaraz». Honakoa zen *Argiaren* helburua lehen zenbakian ageri zen bezala: «Aberriaren askatasuna eta Eusko Jakintzaren askatasuna». Guztira, hamalau zenbaki kaleratu ziren. Lehen laurak Caracasen, eta gainontzeko guztiak New Yorken, Jon Oñatibia oiartzuarrak egoitzaz aldatu zuenean.

Euskara garbiaren zaintzaile

Andoni Arozena euskara «garbiaren» defendatzaile sutsua izan zen eta idazle gazte batzuek erabiltzen zuten «euskara gaiztoa» kritikatu zuela dirudi, Gabriel Arestik Andoni Arozenari berari 1963an idatzi zion gutun bati kasu egiten badiogu, behintzat. Joxe Azurmendik jaso zuen gutun hori «Arestiren tintazko bataioaz» izenburupean *Jakinen* idatzi zuen lanean, 1991n (62. zenbakian). Joxe Azurmendik ez du uste Gabriel Arestik inoiz bidali zionik gutun hori Andoni Arozenari. Eskutitzan, Arestik Arozenari erantzuten dio lasartearrak, antza, kritikatu egin zuelako Arestik «Mugaldeko herrian eginikako Tobera» komedian erabilitako euskaragatik. Hona Gabriel Arestik idatzitako gutunaren pasarte batzuk:

[...] Deretxo guztia ematen dizut nere obrarekin sartzeko. Hori da gizonaren deretxoa. Baina zure zorionez etzaren nire pertsonarekin sartzen. Amerikako euskaldunek eztuzue oraindik giza legea ahaztu. Eskerrik asko, behin euskal abertzaleakan izan nuen fedea ezpaituzu alferrik galtzen utzi [...].

Baina, ondoren, honako kritika zorrotza egiten dio:

[...] Neretzat «euskera garbia» defenditzen duzutenok heretikoak zarete, gure herriaren etsaiak. Baina komertikizunak; gehienak behintzat.

Neretzat bi euskera klase diferente daude: hala erakatsi dit Euskal Herriak: euskal garbia eta euskal gaiztoa. Eta zuen euskera garbia, euskal gaizto bat da, herriak konprenitzen eztuena. Badakit intenzio onarekin zabil-tzatela bide hortatik. [...].

Era honetara amaitzen du eskutitzarekin:

[...] Dena dela, eskerrik asko iraindu ez nauzulako. Ezta hori gaurko euskaldunen ohitura.

Zuen euskeran: Gora Euzkadi azkatuta.

Nerean, eta nere herriarenean: Biba

Euskalerrria libre.

Arantzazu, 1963/III/17an.

Garesti



«Kedar izkia»

Andoni Arozenarentzat euskara batuak «idazkera mordoilloa eta izkera zabarra» ekarri zuen. Horrela idatzi zuen «Euskera, erna zadi!» izeneko artikuluan. Idatzi horretan Euskerazaintza erakundearen lana laudatzen zuen (erakunde horren eskakizun nagusien-etarikoak dira euskalkiak indartzea eta «H» hizkia euskaratik alboratzea). Berarentzat «H» letrak euskara zikintzen zuen, tximinia baten antzera. Artikulu berean, ariketatxo bat egiten du «H»arekin eta horretarako Bernardo Atxagaren *Obabakoak* liburua hartzen du lagin modura. Zera frogatu nahi zuen: zenbat toki betetzen duen, alferrik, «H»ak. Liburuaren 8 orrialde aztertu zituen eta bakoitzean ageri ziren «kedar izkiak» zenbatu zituen:

[...] Banan bana «h» kedar-izkiak arkatz gorriz ikutu ta berriro banan-bana zenbatu-takoan, batez beste, orrialde bakoitzean 24 «kedar-izki»; beraz, «Obabakoak» idaztiak dituen 402 orrialdeetan 9.648 (bederatzi milla t´erdiz gora) «h» guztira! la amar milla izki oiei toki emateko ogei bat orrialde bearko lirake; liburuxka bat osatzeko aña alajaña!! [...].

1965. urteko maiatzekoa da argazki hau. Irudiaren atzealdean hauxe jartzen du: «Amaren eguna, Día de la madre. Clavel rojo»

Euskal Herrira joan-etorria

Beti izan zuen etxera bueltatzeko itxaropena. Artikulu askotan ageri da herri-min hori. 1944ko Gabonetan, adibidez, artikulu bat idatzi zuen Caracasko *Euzkadi* aldizkarian «Gabon» izenburuarekin:

[...] Zuek ere, ene semetxo Xabier eta beste eusko poxpolin maite oiek, txikitxoak zera-telako ez dakizuten arren, zuek ere antxe zaute. Amerika'ko lurralde epel eta maitagarri ontan Jainkoak kabi leguna opa badi-zute, gogoia antxe daukazute ta egunen batean bere billa joan bearrean izango zerate Aberri aldez ekitera [...].

Laurogei hamarkadaren hasiera aldera itzuli zen Lasartera, Iñe hil ondoren. Han, Benantxi arrebaren etxean egon zen eta bete-betean



80. hamarkadan itzuli zen Andoni Arozena Lasartera eta oso aldatua aurkitu zuen bere herria, itxuraz eta izaeraz

sartu nahi izan zuen bere herriko politikan, baina Venezuelatik ekarri zuen aberri idealizatuaren ideia ez zettorren bat orduko EAJko alderdikideen ideiekin. Gainera, sekulako zartakoa hartu zuen Lasartek jasandako aldaketa itzela ikusi zuenean. Bere gaztetako jaioterriak mila eta bostehun biztanle inguru baino ez zituen eta bat-batean hemezortzi milatik gora herritar zituen Lasarte ezezagun batekin topo egin zuen: etorkinez beteriko herria, erdara nagusi eta sozialistak buru; oso bestelakoa berak utzitakotik.

Hala ere, lanean aritu zen buru-belarri, Lasartek independentzia lortzeko ahaleginean, batez ere (Lasarte-Oriako behin-behineko udalbatzaren idazkaria izan zen). Dena dela, urtetan bere aberrira itzultzea desiratu bazuen ere, Venezuelara bueltatu zen, semeen ondora, eta han geratu zen.

1989ko abenduaren 6an, Caracasko Euskal Etxeak emanaldi bat antolatu zuen Bihotz Zelai abesbatzarekin, euskal erbestealdiaren 50. urteurrena ospatzeko. Andoni Arozena ospitalean zen. Lasartearrak ezin izan zuen kontzertua entzun, ikuskizunaren egun berean hil baitzen.

Gizon kritikoa, baina koherentea berak gehien maite zuen hizkuntza eta herriaren alde lanean: «Euskara da gure fusilarik onena, hori ezin digute eskuetatik kendu». Josu seme zaharrenari esandakoa da hori eta horixe egin zuen bere bizitza guztian: euskara erabili euskara bera defendatzeko.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Jesus Mari Egizabali
- Josu Arozenari
- Xabier Arozenari
- Unai Arozenari
- Patxi Albizuri
- Pello Artetxeri
- Eusko Jaurlaritzari. *Peru Ajuria El exilio vasco en Venezuela. Amerika eta euskaldunak*. Eusko Jaurlaritza, 1992
- Sabino Arana Kultur Elkargoari. «Abertzaletasunaren agiritegia. Sabino Arana Kultur Elkargoa. Peru Ajuria funtsa»
- Koldo Mitxelena Kulturuneari
- Gure Etxea argazki-artxiboari
- Publibrock argazki-artxiboari
- Kutxa Fototekari
- *Txintxarri* aldizkariaren artxiboari

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2007ko

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 978-84-457-2617-4 (Lan osoarena)
978-84-457-2620-4

L.G.: BI - 2587-07

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística